

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zauriturik ez eskola autobus batek NARBARTE parean izandako istripu arinean

Lekaroz BHIra bidean zihoan autobusak istripua izan du NA-121-A errepidean, eta ikasle guztiak zein gidaria onik daude, ez dute inolako artatze-medikurik behar izan

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Saldias herritik Lekaroz BHI ikastetxera abiatzen den eskola autobusak istripua izan du, zehazki NA.121-A errepidean, eta ikasle guztiak zein gidaria onik daude, ez dute inolako artatze-medikurik behar izan.

Goizeko 7:41 zirenean abisua jaso du Foruzaingoak eta inguruan zebilen segurtasun patruila bertaratu da gertakariaren lekura. NARBARTE herri parean, 42,200.kilometroan izan da ezbeharra, kamioi bat bere errailetik irten eta autobusaren kontra arinki jo duenean. Foruzaingoak ikasleak eta gidariak onik zeudela baieztatutakoan, errail bat itxi du segurtasun osoz prebentzio-diligentziak kudeatu ahal izateko.

Hezkuntza Departamentuak berehala deitu du bai eskola-garraio honetaz arduratzen den enpresara, bai eta Lekarozeko BHI ikastetxera. Bertatik ikasleak klasera normaltasunez heldu direla baieztatu dute. Autobus honek goizero 46 ikasle eramaten ditu bertara bere lehen txandan.

Zorionez, ikasle denak ongi daude baita gidaria bera ere.